


# LIBURUKA

2018-2019



Donostia Kulturako Liburutegien Sareak irakurketa sustatzeko **LIBURUKA** proiektua abiarazi zuen 2018-2019 ikasturtearen hasieran, hiriko ikastetxeekin elkarlanean. Proiektua lau programek osatzen dute:

**1. Motxila txikia** liburutegia, eskola eta familia lotzen dituen programa da, eta Haur Hezkuntzako (3-5 urte) eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloko (6-7 urte) ikasleei zuzenduta dago. Haurrak liburutegira joaten dira liburuak aukeratzera eta liburu horrek ibilbide bat egiten du: liburutegitik etxera, etxetik eskolara eta eskolatik berriz liburutegira.

**2. Irakurle Gazteak** egitasmoaren xede nagusia da Donostiako ikastetxeei liburutegietan mailegagarri dauden liburuak eskaintzea. Lehen Hezkuntzako (6-11 urte) eta DBHko 1. zikloko (12-13 urte) ikasleei zuzenduta dago. Liburutegiek proiektu honetarako hautatuak izan diren liburuak mailegatzen dizkiete ikastetxeei, bi hilabete t'erdiko epean ikasgeletan irakur ditzaten. Liburu mota desberdinak (albuma, narratiba, poesia, antzerkia, komikia eta ezagutza liburuak) bidaltzen dira, euskaraz nahiz gaztelaniaz idatziak. Ikastetxeetatik gomendatzen dizkiguten liburuak **Liburu dantza** blogean argitaratzen ditugu.

**3.** Irakurtzeko zaletasuna sustatzen duten **Areto literarioak** urtero eskaintzen dira, Galtzagorri Elkartearekin elkarlanean. 2018an, adibidez, **Itsaspeko bihotzak** aretoaz gozatu ahal izan zuten 8 eta 14 urte bitarteko ikasleek. Areto honek genero berdintasuna lantzea du helburu, euskarazko haur eta gazte literatura oinarri hartuta. Aretoko saioaren ondoren edo aurretik, ikasleek Liburutegi Nagusiko Haur Saila (Fermin Calbeton, 25) bisitatzen dute.

**4.- Etengabeko formakuntza** eskaintzen zaie Donostia Kulturako liburuzainei, haur eta gazte literaturaren inguruan, erabiltzaileei irakurketari lotutako gomendiorik eta aholkurik egokienak ematen jakiteko.

+ **Info:** [haurliburutegia@donostia.eus](mailto:haurliburutegia@donostia.eus)